



Euskararen **11** sentsibilizaziorako pilula:

**euskara hobetzeko aholkuak, euskarari
buruzko berriak, euskal kultura eta askoz
gehiago!**



Latxa, Egunean Behineko jokalarari berria

Egunean Behin-eko denboraldi berrian jokalarari berri bat ari da goizero jokatzeko: Latxa. Adimen artifizialaren bitartez sortutako jokalaria da eta haren emaitza egunero ikus daiteke sailkapen orokorrean eta astekoan, baina aukera ireki dute orain jokalarien taldeetan ere sar dadin. Atzo, adibidez, 44.000 jokalarari baino gehiagoren artean 2.174. zihoan.

Latxa zure taldean sartzeko argibideak bildu

Sustatuk.

Informazio gehiago: [Susatu.eus](https://susatu.eus)



2 Hitzordua Ziburun

Agendetan gordetzeko moduko hitzordua dugu **ekainaren 1a**, orduan antolatu baita Ziburuko 5. euskal liburu eta disko azoka.

Euskara hutseko liburu eta disko azokaren edizio honetan, **41 argitaletxe izango dira, 120 metro erakusmahai** beteko dituztenak (inoizko gehienak).

Egun osoan zehar orduerdiro izango da ekitaldiren bat gozatzeko aukera: **sei liburu aurkezpen, lau kontzertu txiki...**

Aurtengoan Daniel Landart idazle eta antzerkigile baxenafarra izango da omendua.




3

Ziburun aurkeztuko diren liburu berriak




- Irritaia, Mattin Martiarena



- Etxe bat norberarena, Yolanda Arrieta




- Mikroipuinak, Idoia Torregarai eta Zaldieroa



- Manttalingo Alaba, Mikel Etxaburu




- Rifqa, Mohammed El Kurd, Eider Behobideren itzulpena.



- Mesfida zaitez, Bea Salaberri

4

'Gerorik balego', Olatz Salvadorren abesti berria



Musikari donostiarrak abesti berria kaleratu berri du, 'Gerorik balego', aurretik ateratako 'Basa' kantuarekin batera iraila amaieran plazaratuko duen diskoaren parte izanen dena.

Ektronikaz lagunduta, atmosfera iradokitzaile eta poetiko bat da musikari donostiarrak eraiki duena, aurrekoa baino are zikinagoa, basatiagoa eta ilunagoa.

Informazio gehiago: [Euskalerrirratia.eus](https://www.euskalerrirratia.eus)



Mila esker!

Hurrengo Pilulara arte

Proposamenak, iradokizunak, zalantzak...



i.lizeaga@elhuyar.eus